



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko maiatzak 18

Vitoria-Gasteiz, 18 de mayo de 2021

Lehendakaritza

EUSKADIK 35 URTE BETE DITU EUROPAR BATASUNEAN

- **Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzaren 25. urteurrena eta euskal erakundeek Europako erakundeetan 35 urte eman dituztela ospatuko da**

Eusko Jaurlaritzak aurten ospatuko du 25 urte bete direla Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza sortu zenetik eta euskal erakundeek 35 urte eman dituztela Europar Batasuneko hiriburuan. Bruselakoa izan zen Eusko Jaurlaritzak atzerrian sortu zituen ordezkaritzetako lehena, eta mugarri bat izan zen Euskadiren nazioarteko ekintzan. Horrela, indartu egin zen bere erakundeen eta eragileen presentzia aktiboa erabaki komunitarioak hartzeko epizentroan.

Urteen poderioz, Bruselako Ordezkaritza, batetik, “bandera-ontzi” bihurtu da Europar Batasunean euskal interesak defendatzeko; eta, bestetik, erreferente ere bihurtu da euskal eragileentzat, Europar Batasuneko erakunde eta organoekin dituen harreman ugarietan. Bulego horietan lan-bilerak, enpresa-topaketak, prentsa-agerraldiak eta abar egin dira. Halaber, topagunea ere izan da urte horietan Bruselara bidaiatu duten Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzak —gehienak lehendakaria buru dutela— eta Belgikan bizi den euskal komunitatea elkartzeko.

Gainera, euskal ordezkaritza ofizialak Euskadi hainbat esparrutan garatzen ari den aukera-antena eta jardunbide egokien bozgorailu gisa funtzionatzen du, bai Europako erakundeen aurrean, bai Europako eta nazioarteko gainerako eskualdeen aurrean. Lan horretan, oraindik ere funtsezkoa da Europako bazkide eta sareekin batera lan egitea eta Europako erakundeekiko lankidetzaren fidelizatzea.

Europazaletasuna

Euskal ordezkaritza ofizialaren 25 urteak ospatzeko, izaera europazalea duten hainbat ekimen eta jarduera aurreikusi dira urte osoan zehar egiteko. Ekimen eta jarduera horien helburua da Euskadiren ahotsa entzunaraztea Europaren etorkizunari buruzko eztabaidan.

Hala, euskal eragileen eta Europako bazkideen lankidetzarekin, jarduera-programa bat antolatu da, honako hauek jorratzeko, besteak beste: ekonomiaren indarberritzea; klima-aldaketara egokitzea; berrikuntza eta iraunkortasunarekin lotutako kultura eta sorkuntza, New European Bauhaus erakundearen eskutik; ekonomia zirkularra; espezializazio adimenduna eta etorkizuneko erronkei erantzutea.

Ordezkaritza

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren mendeko kanpo-ordezkaritzen sareko kide da. Ordezkaritza Bruselaren bihotzean dago eta Ardantza lehendakariak inauguratu zuen 1996ko otsailean.

Besteak beste, Euskadiren interesak ordezkatzen ditu EBko erakundeek eta Bruselan egoitza duten erakunde multilateralen eta organoen aurrean. Era berean, zeregin hauetaz ere arduratzen da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenei eragiten dieten Europako Erkidegoko legegintza-ekimeneen jarraipena egiteaz; euskal agintarien eta eragileen eta Europako Erkidegoko erakundeek arteko harremanak ezartzeaz; eta Europako Erkidego mailan esku hartzeko asmoa duten erakunde publiko eta pribatuak aholkularitza teknikoaz, laguntzarako zentro logistiko gisa.

Lana eta Enplegua

GOBERNU KONTSEILUAK 100.000 EURO BIDERATZEA ONARTU DU EMAKUMEEN EKINTZAILAZA SUSTATZEKO

- **Emakumeen talentua enpresetako eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan ere sartu nahi da**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 100.000 euro bideratzea aurten emakumeen ekintzailatza sustatzeko eta emakumeen talentua enpresetako zuzendaritza-organoetan sartzeko. Ekimen hori da Lan eta Enplegu Sailak aurtengo aurrekontuetan txertatu duen berrikuntzetako bat, lan-arloan gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko.

Diru-laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte egoitza soziala, jarduerak garatzea eta nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzea duten erakundeek, baldin eta horien helburuen artean badago emakumeen ekintzailatza sustatzea eta talentu femeninoa sartzeko enpresetako eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan.

Ekimen hau duela gutxi onartutako 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiak ezarritako ildoan barruan kokatzen da, eta, gainera, kristalezko sabai hori apurtzeko eta emakumeek erantzukizunezko lanak eta hobeto ordaindutako lanak egin ahal izateko aurreikusitako ekintza ugariekin bat egiten du.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK 2021-2024 ALDIRAKO GASTEIZKO HIRIBURUTZA KANONARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA BAIMENDU DU

Gobernu Kontseiluak Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzea onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komuneko egoitza den aldetik Gasteizko hiriaren sustapena finantzatzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak guztira 40 milioi euro jarriko ditu 2021, 2022, 2023 eta 2024 urteetan, urte bakoitzean 10 milioi euro. Partida ekonomiko hori hiriko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzeko inbertsioak egiteko erabiliko da.

Vitoria-Gasteizen zenbait inbertsio egin ahal izateko helburuarekin eta borondatearekin berri du Jaurlaritzak hiriburutza kanona izenaz ezagutzen dena. Inbertsio horiek hiri ingurunea baldintza onenetan zaintzen laguntzen dute, baita herritarren segurtasuna eta mugikortasun eta irisgarritasun azpiegiturak sustatu eta, oro har, zerbitzu publikoa hobetzen. Bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmen honek 2013an eta 2017an sinatutakoak berriko ditu, lau urtekoak horiek ere.

Toki araubidearen arloan eskumena duen Gobernantza Publiko eta Autogobernua Sailaren bidez, Eusko Jaurlaritzak urtean hamar milioi euro jarriko ditu, lau urtetan zehar, honela banatuta: 7,5 milioi euro Vitoria-Gasteiz sustatzeko, erakunde komuneko egoitza den aldetik, Udalaren gastu orokorrak finantzatzeko, bai eta hiri espazio publikoan errehabilitazio eta mantentze lanak egiteko ere; eta beste 2,5 milioi euro mugikortasunaren, ingurugiro azpiegituren, gizarte eta kultura ekipamenduen eta hiri azpiegituren arloan inbertsioak egiteko.

Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen egoitza izendatu zen maiatzaren 23ko 1/1980 Legearen bidez. Hiriak hainbat gastu orokor eta inbertsio gastu dakartzaten jarduerak egin behar izaten ditu Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren egoitza delako, bai eta haiekin lotutako gainerako erakundeena ere, hala nola Ararteko, Kontuen Euskal Epaitegia eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.


Ekonomia eta Autogobernua

EUSKADI NEXT PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERALDAKETA EKONOMIKOAREN ETA BERTAKO SENDOTASUNEN ALDE EGITEN DU, ESKUALDEKO 9 PERTE PROIEKTUREN BIDEZ

Eusko Jaurlaritzak Euskadi Next 2021-2026 Programa eguneratzea onartu du gaur. Programa horretan, eraldaketa ekonomikoaren aldeko apustu garbia jasotzen da, baita Euskal Autonomia Erkidegoak Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismitik —MRR— datozen Europako funtsen erabileran dituen sendotasunak sustatzearen aldekoa ere, eskualdeko bederatzi PERTE proiekturen bidez. Euskal programaren eguneratze horren arrazoia da aurtengo lehen hilabeteetan funtsen kudeaketarekin eta Europan, Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan duten gobernantzarekin zerikusia duten gaiak ezagutu direla, eta horiek nahitaez hartu behar direla kontuan programa bideratzean.

Euskadi Next programak, guztira, 18.286,6 M/€-ko inbertsio-inpaktua —Europako funtsak eta baliabide propio publiko eta pribatuak— jaso lezaketen proiektu zehatzak biltzen ditu. Ez da MRR mekanismoaren eragin zehatza kuantifikatu, ezinezkoa baita proiektu bakoitzarekin zenbat lortuko duen jakitea, "Estatu-laguntzen" irizpideen arabera izango baita. Inbertsio osoaren % 35 batez beste hartuta, 6.400 M/€-ri buruz —Espainiak jasoko dituen 70.000 m/€-ko dirulaguntzetatik— hitz egiten egon gaitezke. Dokumentuan jasotako proiektu guztiak ukigarriak eta gauzatzeko modukoak dira Europak ezarritako denbora-esparruan.

Garrantzitsua da ulertzea zenbateko hori ez dutela euskal erakundeek osorik jasoko, baizik eta instituzioen (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalak, Estatuko Administrazio Orokorra), erakunde pribatuen, hirugarren sektorearen eta abarren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izan dezakeen MRR mekanismoaren zenbatekoa dela. Euskadi Next programaren planteamenduak suspertzeko palanka gisa eraldaketa azpimarratzen du, eta euskal proiektuak lau mailatan banatzen ditu, "España puede" planarekin eta Europako jarraibideekin bat egin ahal izateko. Ildo horretan, esku-hartze piramidaleko egitura bat planteatzen da, jarraian azaltzen den moduan:



EUSKAL PROIEKTUAK ESTATUKO 5 PERTE PROIEKTUTAN

Europak figura hori baliozkotzen duen jakiteko zain, Estatuak 6 PERTE proposatu ditu. PERTE horiek sektore estrategikoetan jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa bultzatzeko esparruak dira, balio-kate osoa herrestan eramateko gaitasuna dute, puntakoak teknologikoki, baina merkatu-akatsak gainditzeko beharra dute; hain zuzen ere, teknologia landu behar delako, eta, aldi berean, beste behar batzuei ere heldu behar zaielako, hala nola etengabeko prestakuntzari, unibertsitate-heziketari, lanbide-heziketari eta abar. Epealdian zehar 10 izatea aurreikusten da, baina beste 4ak oraindik ez dira ezagutzen. Orain arte identifikatutako Estatuako PERTE proiektuekin lotura argia duten Euskadi Next programan aurreikusitako guztizko inbertsioak 5.085 milioi eurokoak dira, eta proposatutako 6 PERTEetatik 5etan sartzen dira.

ESTATUKO PERTEA	Inbertsio osoa (M€)
AUTOMOBILGINTZA BERDE ETA KONEKTATUAREN INDUSTRIA	2.105,9
ENERGIA SORKUNTZA HIDROGENO BERDEAREN BITARTEZ	1.410,4
INDUSTRIA AEROESPAZIALA	334,3
NEKAZARITZA JASANGARRIA ETA ERAGINKORRA	483,3
PUNTA-PUNTAKO OSASUN-SISTEMA NAZIONALAREN GARAPENA	750,9
ESTATUKO PERTEAK GUZTIRA	5.084,8

*1. eranskina: ESTATUKO PERTE proiektuentzako ekarpena

ESKUALDEKO PERTE PROIEKTUAK: ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNEKO ESTRATEGIA

EAEren planteamenduak figura hori proposatzen du, gainerako autonomia-erkidegoetara ere zabal daitekeena; izan ere, guztiek dituzte 2014an onartutako espezializazio adimenduneko estrategiak, Egiturazko Funtsak (EGEF eta EGIF) eskuratu ahal izateko. Proiektu konplexu estrategikoak eta eraldatzaileak hainbat "ministerio-leihatilatan" ez zatikatzeko bide bat eskaini nahi da. Proiektu horiei esker, lehiakortasun globala lor daiteke, baita merkatu-nitxoetara iritsi ere, mundu-mailako lidergoekin, abangoardiako garapen teknologikoarekin eta euskal produkzio-sarearen trakzio-gaitasunarekin. Gaitasun publiko zein pribatu guztiak aktibatzea da helburua. Euskadi Next programak guztira 6.400 M/€-ko inbertsioa duten proiektuak barne hartzen dituzten **ESKUALDEKO 9 PERTE** planteatzen ditu. PERTE horiek taula honetan daude jasota:

LURRALDEKO PERTEA	Inbertsio osoa (M€)
BIZITZA LUZEA, ONGIZATEA ETA ERRESILIENTZIA	646,7
BANAKETA ADIMENDUNEKO SAREAK (URA, GASA ETA ELEKTRIZITATEA)	1.518,6
ITSAS JATORRIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	272,8
GAITASUN ZIENTIFIKOA ETA TEKNOLOGIKOA	380,6
BIG DATA, CLOUD, ADIMEN ARTIFIZIALA, ETA ZIBERSEGURTASUNA.	484,7
EUSKADI SORTZAILEA	108,7
HIRI JASANGARRIAK	1.130,4
KLIMA-ALDAKETAREN AURREKO ERRESILIENTZIA, EKOSISTEMAK ETA BIODIBERTSITATEA	383,4
EKOBERRIKUNTZA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA	1.473,5
LURRALDEKO PERTEAK GUZTIRA	6.399,3

*2. eranskina: *ESKUALDEKO PERTE PROIEKTUAK*

DIRULAGUNTZEN eta LIZITAZIO PUBLIKOEN DEIALDIAK

Azkenik, Administrazio Publikoen dirulaguntzen deialdietara edo indarrean dauden beste tresna batzuetara joz garatuko diren ekimenak, inbertsioak eta/edo proiektuak jasotzen dira. Horiek MRR mekanismoaren zati garrantzitsu bat bideratzeko balioko dute. Formula hori izango da biderik garrantzitsuena funtsak eragile sozioekonomiko guztietara heltzeko, izan enpresak —bereziki, ETEak—, hirugarren sektoreko eragileak eta toki-erakundeak —Estatuko Administrazioetik kudeatutako edo aldeztuak autonomia-erkidegoetara transferitutako hainbat deialdiren onuradunak edo hartzaileak, hainbat esparrutan, hala nola turismoan, energia-efizientzian, hiri-berroneratzean eta abar—. Kasu gehienetan aurreikusita dago lehendik dauden laguntza-deialdiak erabiltzea, MRR mekanismoaren baliabide gehiago eskuratzeko, eta administrazio-izapidetzea arinagoa izan dadin lortzeko.

Bestalde, inbertsio publikoko proiektuak gauzatzeko administrazioek ditugun tresnak erabiliko ditugu, hala nola lizitazioak eta erosketa publikoa, teknologia berritzailearen erosketa publikoa barne. Erronka funtsak bizkortzea da, eta, horretarako, beharrezkoa da araudian eta kudeaketa publikoko prozeduretan eta tresnetan dauden oztopoak eta botila-lepoak berrikustea, kontrol-betebeharrak murriztu gabe. Jarduketa horietako askok eragin argia izango dute udaletan, hiri-habitata eta naturguneak hobetuko dituzten azpiegiturak izango baitira, hainbat gairi dagokienez: uren saneamendua eta arazketa, konektagarritasun digitala, bioekonomia bultzatzea, etab.

EUSKADI NEXT OSAGAIK	Guztizko inbertsioa (M€)
PERTSONEN OSASUNA ETA ZAINZA	284,5
BIZITZA OSOKO IKASKUNTZA	747,8
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN SORKUNTZA	699,8
MUGIKORTASUN JASANGARRIA	1.391,4
DIGITALIZAZIOA ETA BERRIKUNTZA	1.316,4
HIRI-HABITATA	1.306,5
HABITAT NATURALA ETA HONDAMENDI NATURALEN PREBENTZIOA	976,2
EKONOMIA ZIRKULARRA	79,9
GUZTIRA DEIALDIAK ETA LIZITAZIOAK	6.802,5

*3. eranskina: Euskadi Next-eko 8 osagairen dirulaguntzen eta lizitazio publikoen deialdiak

LURRALDE-OREKA

Oraingo honetan, Eusko Jaurlaritzaren proiektuek duten pisua handitu egin da; izan ere, lehen bost hilabete hauetan, Estatuak planteatutako ekintza-esparruak ezagutu dira, eta horiek bideragarri egin dute Hezkuntzaren —Lanbide Heziketari eta I+G+b-ri buruzko guztia— eta Osasunaren —digitalizazioa, medikuntza pertsonalizatua eta terapia aurreratuak— arloetan oso jarduera indartsuak barne hartzea. Era horretan, banaketa honela geratuko litzateke:

	GUZTIZKO INBERTSIOA
EAE <i>*lurralde guztiak batera hartuta</i>	% 59
ARABA	% 11
BIZKAIA	% 18
GIPUZKOA	% 12
	% 100,00

Ekonomia eta Ogasuna

GOBERNU KONTSEILUAK 180 MILIOI EUROKO AURREKONTU-ZUZKIDURA ONARTU DU ESKUALDE BEHARTSUEI BULTZADA EMATEKO

Gobernu Kontseiluak 180 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura berri bat onartu du astearte honetan, egoera ahulean dauden eskualdeak edo lehentasunezko jarduera-eremuak bultzatzeko. Aurrekontu-izaerako neurri hori 2020-2024 aldirako Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU programan sartutako ezohiko jarduera esanguratsu baten ondorio da, eta Eusko Jaurlaritzak horren berri eman zion programa horren Zuzendaritza Batzordeari joan den martxoaren 10eko bileran.

Jarduera honen helburua da trakzio-proiektu batzuk dinamizatzea egoera ahulenean dauden eskualdeetan edo lehentasunezko arreta eremuetan (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea). Ezohiko inbertsio hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan helburu horietarako edo antzekoetarako ezarritako zuzkiduren osagarri izango da. Horretarako, 2021eko ekitaldian jarriko dira martxan trakzio-proiektuak, eta foru-aldundiekin, udalekin eta eskualdeko eragileekin lankidetzan gauzatuko dira 2021etik 2023ra bitartean. Orain arte definitutako proiektuak partaidetza- eta lankidetzatza-prozesu baten bidez hautatu dira. Prozesu horretan, eskualde bakoitzeko eragile ekonomikoek, sozialek eta erakundeek parte hartu dute modu erabakigarrian.

Gaur egun, Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri eta Oarsoaldea eskualdeetarako trakzio-proiektu batzuk aukeratu eta zehaztu dira, haien egingarritasunaren, espero den eraginaren eta kokapen estrategikoaren arabera identifikatuta. Aiarako eskualdeko trakzio-proiektuak identifikatzeko ere partaidetza-prozesu bat eta antzeko hautaketa-ariketa bat egingo da.

Trakzio-proiektu horiek hainbat kudeaketa-arlotan eragiten dute (Industria, Nekazaritza, Kultura, Enplegua, Lanbide Heziketa, Osasuna, Etxebizitza, Trenbide-azpiegiturak, etab.), eta 2021-2022 aldian gauzatu beharreko inbertsio-jarduera zehatzak dituzte jomuga, kasu batzuetan 2023ko ekitaldira zabal daitezkeenak.

Alde horretatik, Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen baimenak aukera emango du ezohiko ekimen hori abian jartzeko eta gauzatzeko behar diren baliabideak izateko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta finantza-legediaren eta aurrekontu-araubidearen baitan. Jarraipena BERPIZTU Programaren Zuzendaritza Batzordeak egingo du.

Ekonomia eta Ogasuna

GOBERNU KONTSEILUAK ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTU DU, COVID-19AK ERAGINDAKO SEKTOREENTZAKO ZUZENEKO LAGUNTZAK KUDEATZEKO

Gobernu Kontseiluak astearte honetan onartu du Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak, María Jesús Montero Ogasun ministroak eta Estatuko Zerga Agentziak sinatu beharreko hitzarmena, COVID-19ak eragindako sektoreei bideratutako 218 milioi euroko laguntza zuzenak kudeatzeko; laguntza hauek enpresa-kaudimena babesteko ezohiko neurrien barruan sartzen dira. Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak aste honetan bertan sinatuko du akordioa, ekainean laguntzen deialdi publikoa egin ahal izateko.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritza laguntzen deialdiaren testua lantzen ari da. Bertan, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako EJSN jardueraz gain (jarduera ekonomikoak), jarduera ekonomiko berriak ere sartuko dira, eta horiek ere laguntzak jaso ahal izango dituzte pandemiak euren egoera ekonomikoan izan duen eraginaren arabera; halaber, indarrean dagoen aurrekontu propioko baliabideak jarriko ditu, eragindako sektoreei zuzeneko laguntzak handitzeko. Igoera horren balorazio ekonomikoa zehazteke dago oraindik, eta laguntzen deialdia ekainaren amaieran abiaraztea aurreikusi da.

Alderdi sinatzaileen arteko informazio-trukea, emandako datuen kontrola eta segurtasuna eta EAEko zerga-berezitasunak funtsezko alderdiak dira, eta bi exekutiboen artean adostu dira sinatu beharreko behin betiko testua adostu ahal izateko.

Diru-laguntza zuzen horiek finalistak izango dira, eta zorra ordaintzeko eta hornitzaileei eta beste hartzekodun batzuei, finantzarioei zein ez-finantzarioei, ordainketak egiteko erabiliko dira, bai eta kostu finkoak ordaintzeko dauden zor horiek 2020ko martxoaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean sortu badira.

Kudeaketarako 43 teknikari kontratatzea

Laguntza horiek kudeatzeko behar diren giza baliabideak emateko, Gobernu Kontseiluak, halaber, lan-poltsen bidez hautatutako profil teknikoko 43 bitarteko funtzionario kontratatzea onartu du. Kontuan izan behar da 2021eko abendurako laguntza horiek ebatzita egon behar dutela, eta erkidegoetako gobernuei ezarri zaien administrazio-karga oso handia dela, eta kontratazio horren kostuak Eusko Jaurlaritzak ere bere gain hartuko dituela.

Lantalde hori, hasiera batean, urtebetez egongo da aktibo, eta gehienez ere beste urtebetez luzatu ahal izango da, harik eta ordainketa, justifikazioa eta laguntzen xedea eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatzen den arte. Diru-laguntzak abenduaren 31 baino lehen emango dira.

Ekonomia eta Ogasun Saila arduratuko da eskabideak izapidetzeaz, kudeatzeaz eta ebatziteaz, laguntzak ordaintzeaz, ordainketa egin aurreko kontrolez eta azken hartzaileek zuzeneko laguntzak behar bezala erabiltzen dituztela kontrolatzeaz.

Hezkuntza

11,5 MILIOI EURO GASTEIZKO ALDAIALDE IKASTETXE PUBLIKOAREN ERAIKIN BERRIA EGITEKO

- **Haur eta Lehen Hezkuntzako 3 lerro hartuko ditu, eta 720 ikaslerentzako lekua izango du**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 11.520.676,73 euroko gastua onartzea, Vitoria-Gasteizen Aldaialde Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxearen (CEIP Aldaialde HLHI) eraikin berria egiteko lanak burutzeko.

Eraikin berria, Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru lerrokoa eta 720 ikasle ingururentzako gaitasuna izango duena, 14.192 metro koadroko orubean kokatuko da, Zabalganako 1 sektorean, Borinbizkarra deiturikoan, Ozeano Atlantikoa, Henry Morton Stanley eta Hans Christian Andersen kaleen artean. Hazten ari den Gasteizko gunea bat da, azkenaldian etxebizitza-garapen garrantzitsua bizitzen ari dena.

Eraikuntza proiektuak jasotzen duenez, hiru solairuko eraikin nagusi bat izango du Aldaialde HLHI-k (behe solairua eta horren gainean eraikiriko beste bi). Eraikin nagusiaren alboetan jasoko dira, batetik, administrazio-eremua, beheko solairuan erantsitako hegala batean; eta bestetik, gimnasioa eta kirol-pista estalia, bolumen bakarreko eraikinean. Antolamendu horri esker, ondo bereiz daitezke ikasgelak eta eraikinaren gainerako erabilerak, eta argi eta garbi bereizita geldituko dira Haur Hezkuntzako eremua eta Lehen Hezkuntzako eraikia.

Eraikin nagusiaren konfigurazio linealari esker –iparraldetik hegoaldera doan lerro zuzen itxuran-, gela guztiak ekialdera, mendebaldera edo hegoaldera begira izango dira, bai ohiko ikasgelak eta baita aldi baterako erabilera duten gelak ere.

Kanpoaldean berdegune eta jolaserako espazio zabalak nabarmentzen dira. Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako jolastokiak bereizita ageri dira. Haur Hezkuntzako jolastokia zati batean estalia izango da, eta sarrera-irteera zuzena izango du beheko solairuan dauden geletatik.

Orotara 5.598 metro koadroko azalera eraikia izango duen ikastetxe berrian, honako instalazio hauek dira nabarmentzekoak:

- 4 gela, 2 urteko umeentzat
- 9 gela, Haur Hezkuntzakoak (3,4,5 urte)
- Lo-kuluxkarako gela
- 2 gela, psikomotrizitaterako
- 18 gela, Lehen Hezkuntzakoak
- 2 ingeles gela
- Musika gela

- Erabilera anitzeko gela
- Informatika gela
- Bikoizte gela
- Laborategia
- 2 gela, talde-lanetarako
- Liburutegia 135 m²
- Gimnasioa, aldagelak eta kirol pista estalia, 921 m²
- Jangela eta sukaldea 394 m²
- Sarrerako aterpe nagusia 641 m²
- Haur Hezkuntzarako aterpea 180 m²

Azalera eraikia orotara: 5.598,94 m²

Proiektuak 24 hilabeteko exekuzio-epea izango du, obrak hasten diren egunetik zenbatzen hasita. Hezkuntza Sailak lan hauek udazken amaieran esleitzea aurreikusten du, 2022aren hasieran lanei ekin ahal izateko.

Hezkuntza

IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren kooperatibentzat dirulaguntzak deitzen dituen Agindua.

Deialdi honen xedea da, 33.000 euroko diru-kopuruz, irakaskuntza-kooperatibentzat dirulaguntzak ematea, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren ildo estrategikoekin bat datozen prestakuntza-jarduerak edo jarduera osagarriek eragindako gastuetarako, honako prestakuntza-ildo hauetan:

- Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta
- Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan
- Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

Antolaturiko jarduera horiek ikastetxeetako ikasleei nahiz gurasoei zuzenduak izan daitezke. Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren gastuak, berriz, 2021eko ekainaren 1a eta abenduaren 23a bitartean sortuak izan beharko dira.

Hezkuntza

ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETA EMATEKO ESKUMENA ESKUORDETUTA DUTEN UDALERRIENTZAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntzako sailburuak eskatuta, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak emateko eskumena eskuordetuta duten udalei zuzeneko dirulaguntzak ematea.

Dirulaguntza hauek 68.116 euroko kopurua dute orotara, eta Oinarrizko Lanbide Heziketa emateko eskumena eskuordetuta duten udalei emango zaizkie, Covid-19ri aurre egiteko neurriak aplikatzeak eragin dizkien gastu gehigarriak finantzatzeko. Beraz, dirulaguntza hauen xede izango dira, batetik, prestakuntza presentziala edo online emateko material informatikoa eskuratzeko gastuak, hala nola ordenagailuak edo tabletak; eta, bestetik, Covid-19ren aurka babesteko material sanitarioa erosteko egindako gastuak, hala nola maskarak, eskularruak edo eskuetarako desinfektatzailea.

Oinarrizko Lanbide Heziketa eskuordetua

2015eko uztailaren 27ko erabakiaren bidez, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak emateko eskumena eskuordetu zitzairen hala eskatu zuten udalerriei. Horrela, Hezkuntza Sailak udalerrri bakoitzari eskuordetutako zerbitzuaren guztizko kostua finantzatzen dio, betiere ikasturte eta espezialitate bakoitzeko ikasle-taldea eratzen bada. Finantzaketa horrek barne hartzen ditu eskuordetza eman zaion Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloari egotzi dakizkiokeen kostuak, hala nola langile-gastuak, mantentze- eta funtzionamendu-gastuak, eta inbertsio errealak birjartzea.

Hala ere, Covid-19k sortutako pandemia-egoera dela eta, udalerrri horiek material informatiko gehigarria edo babeserako material sanitarioa erosi behar izan dute; Hezkuntza Sailak horiek finantzatzen laguntzen du, udalei zuzeneko dirulaguntza hauek emanez.

Euskadiko 11 udalerririk eskaintzen dituzte Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak, eskuordetutako eskumenez.

Hezkuntza

100.000 EURO HEZKIDETZA LANTZEKO ETA GENERO-INDARKERIA PREBENITZEKO PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, datozen bi ikasturteetan (2021-2022 eta 2022-2023) hezkidetza landu eta genero-indarkeria prebenitu ahal izateko jarduera-proiektuak garatzeko deia egiten duen Agindua, Euskadiko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetarako.

Gorago aipaturiko hezkuntza-etapak eskaintzeko baimenduta dauden Euskadiko 50 ikastetxe (gehienez) aukeratzea du deialdi honek helburu, hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan jarduera-proiektu bat diseina dezaten datozen bi ikasturteetarako. Jarduera-proiektu horri esker, aukera izango dute hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa ikastetxean era global, sistematikoan eta integratuan lantzeko.

Hautatutako ikastetxe bakoitzari diru-laguntza bat emango zaio. Irakasleen nahiz eskola-komunitatearen prestakuntzarako eta proiektua koordinatu eta hedatzeko jarduerari aurre egiteko baliatuko da laguntza hori.

Jarduera-proiektuak 457 ikastetxetan

Hezkuntza Sailak Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa lantzeko Gida-Plana abian jarri zenetik (2013-2014 ikasturtean), Euskadiko 317 ikastetxe publikok eta 140 itunpekok gartu dute euren proiektua, eta aplikatzen ari dira dagoeneko arlo horietan (hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan).

Aipaturiko Gida-planaren helburua da, hezkuntza sisteman hezkidetza eredia bultzatzea: pertsonen garapen integrala oinarrian duen eskola eredia, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak albo batera utzita, diskriminazio eta genero indarkeria mota guztien kontra egiten duena. Ikasketak eta lanbidea aukeratzekoan sexuaren arabera orientatzen ez duen eredia, eskola-komunitateko kide guztien parte-hartze eta laguntzarekin.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK 5 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATZEN DITU OSASUNeko IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZETARA

- **Ikerketa translazionala sustatu nahi da; alegia, emaitzak eta ezagutza aplikatzea praktika klinikoari, pazientearen onerako**
- **Deialdiak hainbat izaeratako taldeen arteko lankidetzak sustatzen du, osasuneko garapen teknologikoa bultzatzeko eta aberastasuna sortzen ere laguntzeko**

Eusko Jaurlaritzak, **Gotzone Sagardui** Osasuneko Sailburuaren aginduz, osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuen laguntzetarako 2021eko deialdia onetsi du; 5.650.000 euroko aurrekontua du. Partida hori bi bloke nagusitan banatzen da. Batetik, **3.150.000 €**, Osasun-erlako ikerketa-jarduera sustatzeko eta Osasun-erlako ikerketa-jarduera areagotzeko lerroko proiektuetarako, eta, bestetik, **2.500.000 €**, Osasuneko ikerketa estrategikoa sustatzeko lerroko eta Interes bereziko ekintza osagarrien lerroko proiektuetarako.

Deialdia 2021erako Osasun Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategian kokatzen da, eta bat dator 2030erako Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntza Planaren ardatz estrategikoekin eta Euskadiko espezializazio adimenduneko RIS 3 estrategiarekin.

Agindu horretan arautzen diren jarduketan xedea honako hau da: pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren eginkizuna hobetzen laguntzea eta, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktu, zerbitzu eta prozesu berrien bitartez, garapen sozioekonomikoari laguntzea.

Xede horiek betetzeko, deialdia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei dago zabalik. Elkarlaneko ikuspegia duten eta osasunean, gizartean eta ekonomian eragina duen ezagutza sortzera eta integratzera bideratzen diren proiektuak egitea sustatzen da.

Deialdiak lau laguntza-lerro ditu:

- **1. lerroa: Osasun-erlako ikerketa-jarduera sustatzea**, osasun-sistemaren ikerketa-gaitasuna bultzatzeko, ikerketa-talde berriak sortzea barne. Halaber, ikerketa-proiektu integratuak eta proiektu biomedikoak finantzatzeko laguntza ere jasotzen da.
- **2. lerroa: Osasun-erlako ikerketa-jarduera areagotzea**, pertsonal fakultatibo espezialista, unibertsitateko diplomadun edo Erizaintzako edo Fisioterapiako gradudunak kontratatzea finantzatzeko, aldi berean

ikerketa-jarduerak egiten dituzten profesionalen jarduera kliniko-asistentzialaren zati bat egiteko.

- **3. lerroa: Osasuneko ikerketa estrategikoa sustatzea**, Euskadik osasun-eremuan dituen gaitasun zientifiko-teknologiko guztiak aprobetxatzeko, bai eta garapen teknologikoa, produktu berriena, prozesuena eta zerbitzuena bultzatzeko ere.
- **4. lerroa: Interes bereziko ekintza osagarriak**, RIS 3 helburuekin bat datozenak.

Eusko Jaurlaritzak eutsi egiten dio ikerketarekin duen konpromiso irmoari, eta aurtengo zuzkidura handituko du, % 31,08an, iazkoaren aldean.

Hori hala egingo du, Osasun Planean eta osasun pertsonalizatuko RIS3 estrategian jasotzen diren lehentasunei erantzuteko.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ELANKIDETZAK BI DIRULAGUNTZA EMANGO DITU MESOAMERIKAKO GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO ETA HAINBAT TESTUINGURUTAN GATAZKAK KONPONTZEKO ETA PREBENITZEKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman die eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzeneko bi dirulaguntza berriri. Alde batetik, 160.000 euro emango ditu Mexikon eta Erdialdeko Amerikan giza eskubideen defendatzaileak babesteko, eta, bestetik, 250.000 euro indarkeria murrizteko eta gatazkak prebenitzeko Afrikako Laku Handietan eta Mozambiken, Venezuelan eta Sri Lankan.

Erdialdeko Amerikako eskualdean –El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko eta Nikaragua– ugaritu dira giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak eta mehatxuak, eta, bereziki, emakume defendatzaileen aurkakoak. Egoera hori, COVID-19a dela eta, arindu beharrean konplexuagoa bihurtu da. Hori dela eta, lehen dirulaguntza IM-Defensoras erakundeari laguntzera bideratuko da. Erakunde horrek eskualdean giza eskubideen defendatzaileen hainbat erakunde eta sare biltzen ditu. Dirulaguntza hori, arriskuan dauden defendatzaileak erantzutera eta arreta eskaintzera bideratuko da, baita haien ongizatea bermatu eta haien lana segurtasun baldintzetan mantentzera.

Gobernu Kontseiluak onartutako bigarren laguntza *Dialogue Advisory Group* (DAG) erakundeari zuzenduko zaio. Indarkeria murrizteko elkarrizketa politikoak, adiskidetzaren aldeko apustua eta talde armatuen desmobilizazioan eta armagabetzean aurrera egiten laguntzen duen erakundea da. Erakundeak lan egingo du, Afrikako Laku Handietan, Mozambiken, Venezuelan eta Sri Lankan elkarrizketa errazteko gobernuen, oposizioaren, talde armatuen eta nazioarteko erakundeen artean.

Aurreko urtetan, Eusko Jaurlaritzak babestu ditu bai IM-Defensoras eta baita DAG ere, giza eskubideen aldeko haien lanagatik eta bakeari egindako ekarpenagatik.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ELKARREKIN BONUEN DEIALDIAK ONARTU DITU, GUZTIRA 600.000 EURO

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabalek proposatuta, gaur eman die oniritzia Elkarrekin Bonuen programan jasotako hiru dirulaguntza-lerroen aurtengo deialdiei, eta guztira 600.000 euro izango dira.

Programaren helburu nagusia da bakegintzaren eta bizikidetzaren arloko gizarte zibileko elkarte eta erakundeen eta ikastetxe, udal eta herritarren parte-hartzean interesa duten erakundeen arteko lankidetzak sustatzea eta bultzatzea, bizikidetzak eta adiskidetzak kultura sendotzeko.

Zehazki, Elkarrekin Bonuen deialdiak hiru modalitateetan onartu dira: hezkuntza-esparruko proiektuak: ikastetxeak (350.000 euro); tokiko bizikidetzak: udalak (150.000 euro); eta herritarren parte-hartzea: irabazi asmorik gabeko elkarteak, antolakundeak eta gizarte-mugimenduak (100.000 euro). Helburua da irabazi asmorik gabeko erakunde baten eta ikastetxe, udal edo herritarren parte-hartzearen esparruko erakunde baten artean sustatutako proiektuak diruz laguntzea.

Proiektuok finantzatzeko, kudeaketaz arduratzen den Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak bonu-sistema bat aurreikusi du, eta ekarpen ekonomiko bat egingo die hainbat arlotan prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan jardundako ordu bakoitzeko. Zehazki, hauek dira arloak: bakearen kultura, giza eskubideak, biktimikiko elkartasuna, adiskidetzak eta gatazkak konpontzea.

Elkarrekin Bonuak programa 2014an jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak, bakearen, giza eskubideen, indarkeriarik ezaren eta printzipio demokratikoen sustapena sendotzeko ekimen osagarri gisa.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatutako museo eta bildumentzako diru-laguntzak onartu ditu gaur. 1.000.000 euroko partida izango da, honako jarduera hauek finantzatzeko:

- Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.
- Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- Jarduera didaktikoak eta kultura-hedapenekoak diseinatzea eta eskaintzea, gaiaren eta jardun-eremuaren arabera.
- Gaiari eta jardun-eremuari lotutako ezagutza sortzea.
- Museoaren kudeaketan eta hedapen- eta komunikazio-planean berrikuntza hobetzea eta bultzatzea.
- Bisitarietzako prebentzio-neurri higieniko-sanitarioak eta laneko arriskuen prebentzio-neurriak museoetako langileekin lotuta.

Diruz lagunduko diren jarduerak 2021 honetan hasi eta amaitu beharko dira. Interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Era berean, ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu honako hauek: foru-titulartasuna duten museoak edo bildumak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gobernu-organoetan parte hartzen duen fundazioak, Euskadiko Administrazio Orokorraren partaidetza duten merkataritza-erakundeak, helburu bererako diru-laguntza izendunak jasotzen dituzten museoen eta bildumen erakunde titularrak, edo banku-fundazioen edo finantza-erakundeen partaidetza nagusia duten erakundeak.

2020an, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 44 diru-laguntza eman zizkien museo eta bildumei; besteak beste, honako erakunde hauek: Albaola Elkartea, Antzasti kultura-elkartea, Arte Sakratuaren Elizbarrutiko Museoa, Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioa, Makina Erremintaren Museoa Fundazioa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa eta hainbat udal.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 350.000 EUROKO PARTIDAREKIN BULTZATUKO DU KULTURA-ARLOKO JAIALDIEN ANTOLAKUNTZA

Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Musika, arte eszenikoak, liburugintza, ikus-entzunezkoak eta ikusizko arteen arloan antolatutako jaialdiak dira diruz lagunduko direnak. Kultur ekoizpena gizarte osoaren eskura jartzeko helburuarekin Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 350.000 euro bideratuko ditu laguntzetara. 145.000 euro arte bizietaoko jaialdiak antolatzera bideratuko dira (arte eszenikoak, zuzeneko musika, bertsolaritza), 100.000 euro ikus-entzunezko arteetako jaialdiak antolatzeko, 75.000 euro ikusizko arteetako eta literaturako jaialdietarako eta azkenik 30.000 euro diziplina anitzeko jaialdiak antolatzeko.

Dirulaguntza hauetara aurkezten diren proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, eta haien edukia batez ere kulturala izanik, programazio artistikoa izan beharko du.
- Dirulaguntzen deialdi honetara aurkezten diren programek edo jarduerak ekonomikoki bideragarriak izan behar dira.
- Jarduerak herritarrei oro har irekiak izan beharko dute, ekitaldi kolektiboetan eta aurrez-aurre, uneoro errespetatuta indarrean dauden osasun-arauak.
- Jendaurreko jarduerak epe mugatu batean gauzatu beharko dira, inola ere ez bi egun baino laburragoa, ez eta bi hilabete baino luzeagoa ere.
- Marketin, publizitate eta komunikazio publikoko material guztiak gutxienez elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz) argitaratu beharko dira.
- Jaialdiak aldikakoak izango dira eta irauteko bokaziodunak.
- Ez dira jaialditzat hartuko, bira artistikotzat baizik, ikuskizun beraren hainbat emanaldi aurreikusten dituzten proposamenak.

Proiektuak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, maiatzaren 29tik ekainaren 28ra bitartean.

Iazko deialdian guztira 25 jaialdi lagundu ziren diruz tartean Dock of the Bay, BAFFEST, Blues Hotsak, Loraldia, Bilbao Surf Film Festival, Zinemakumeak Gara eta Korterraza Gasteiz.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

#MEC2021 PROGRAMAK 1.350.000 EURO BIDERATU DITU MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO LAGUNTZETARAKO

Merkataritza saltokiak Modernizatzeko Laguntza Programak (#MEC2021) Euskadiko merkataritza-saltokiak eta zenbait zerbitzu modernizatzeko laguntzak arautzen ditu, berrikuntzaren, kudeaketa-tresnen hobekuntzaren, azpiegituren eta merkataritza-ekipamenduaren bidez, kalitate- eta lehiakortasun-maila handiagoa lortzeko bide gisa, eta, gainera, COVID-19ren pandemiak sortutako ezohiko egoera kontuan hartuta. Aurten, bere aurrekontuak 1.350.000 euro bideratuko ditu helburu horiek lortzeko hainbat laguntza-lerrotara.

Laguntzak honako hauei zuzenduta daude: beren konturako langileei edo autonomoei, sozietate zibilei eta legez eraturako ondasun-erkidegoei, eta mikro-enpresei eta enpresa txiki eta ertainei, baldin eta beren jarduera nagusia merkataritza-jarduera edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak badira, eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-establezimenduetan eta zerbitzu jakin batzuetan egiten badute. Enpresa-jarduerak egoitza soziala eta fiskala Euskadin izan beharko du.

Diruz lagundu beharreko inbertsioaren ehunekoa handiagoa izateaz gain, 2021eko deialdiko berritasunik handiena da merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen titularrak onuradun gisa sartzea, orain arte horrelako laguntzak jaso ezin zituztenak, hala nola irudi pertsonaleko zerbitzuak, tindategiak edo konponketa-zerbitzuak.

Edizio honetan, egoera pandemikoa salbuespenezkoa denez, diruz lagundu daitezkeen hiru ekintza-ildo daude. Batetik, merkataritza-establezimendua eraberritzera eta modernizatzera bideratutako inbertsioak, merkataritza-jarduera eta haren elementuak garatzeko beharrezkoak diren altzarrietan eta ekipamenduetan obrak eta inbertsioak eginez.

Bestalde, enpresa-kudeaketa hobetzeko ekipo eta aplikazio informatikoak sartzea, zerga-araudira egokitzea eta web-orrien bidez produktuak merkaturatzea sustatzea. Ildo horretan, garrantzi berezia hartzen du TicketBai online fakturazio-sistema berrira egokitzeko egindako inbertsioei emandako laguntzak.

Azkenik, diruz lagunduko dira COVID-19k eragindako epidemia-egoera dela-eta merkataritza-jarduera higieniko-sanitario onean garatzeko eskuratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak.

Laguntzetarako merezimendu-baldintzak honako hauek izango dira, besteak beste: langileen lan-baldintzak, enpleguko berdintasun-irizpidea, Lana Bateratzeko Plan bat izatea, euskararen erabilera egiaztatzen duten ziurtagiriak izatea, Kontsumobideren arbitraje-sistemara atxikitzea edo negozioaren antzintasuna.

Presidencia

LA PRESENCIA DE EUSKADI EN LA UNION EUROPEA CUMPLE 35 AÑOS

- **Se conmemora el 25 aniversario de la Delegación para la UE y 35 años de la presencia institucional vasca ante las instituciones europeas**

Este año se celebra el 25 aniversario de la creación de la Delegación de Euskadi para la Unión Europea y 35 años de la presencia institucional vasca en la capital comunitaria. La de Bruselas, fue la primera de las delegaciones que creó el Gobierno Vasco en el exterior y marcó un hito en la acción internacional de Euskadi, que vio así reforzada la presencia activa de sus instituciones y agentes en el epicentro de la toma de decisiones comunitarias.

Con los años, la Delegación de Bruselas se ha convertido en el “buque insignia” de la defensa de los intereses vascos en la Unión Europea y referente para los agentes vascos en sus múltiples relaciones con las distintas instituciones y órganos comunitarios. En sus dependencias se han celebrado reuniones de trabajo, encuentros empresariales, comparecencias de prensa.... y ha servido también de punto de encuentro entre las distintas delegaciones del Gobierno Vasco que han viajado durante estos años a Bruselas -la mayoría de ellas encabezadas por el Lehendakari- y la comunidad vasca afincada en Bélgica.

Además, la representación oficial vasca viene funcionando como una antena de oportunidades y un altavoz de las buenas prácticas que Euskadi está desarrollando en diversos ámbitos, tanto ante las instituciones europeas como ante el resto de las regiones europeas e internacionales. En esta labor sigue siendo clave el trabajo conjunto con socios y redes europeas y la fidelización de la colaboración con las instituciones de Europa.

Vocación europeísta

Para conmemorar los 25 años de la representación oficial vasca, están previstas diversas iniciativas y actividades con un marcado carácter europeísta que se van a celebrar a lo largo de todo este año y cuyo objetivo es hacer oír la voz de Euskadi en el debate sobre el futuro de Europa.

Así, se ha organizado en colaboración con agentes vascos y socios europeos un programa de actividades en los que van a abordar la recuperación económica; la adaptación al cambio climático; la cultura y la creación alineada con la innovación y la sostenibilidad de la mano de la New European Bauhaus; la economía circular; la especialización inteligente y la respuesta a los futuros desafíos, entre otros asuntos.

La Delegación

La Delegación de Euskadi para la Unión Europea forma parte de la red de delegaciones en el exterior dependiente de la Secretaría General de Acción Exterior de la Presidencia del Gobierno Vasco. Su sede -situada en pleno corazón de Bruselas- fue inaugurada en febrero de 1996 por el Lehendakari Ardanza.

Entre otras funciones, es la encargada de representar los intereses de Euskadi ante las instituciones de la UE y las diferentes organizaciones multilaterales y órganos que tienen sede en Bruselas. Asimismo, es la responsable del seguimiento de iniciativas legislativas comunitarias que afectan a las competencias de la Comunidad Autónoma; del establecimiento de relaciones entre las autoridades vascas y agentes con las instituciones comunitarias; y del asesoramiento técnico, como centro logístico de apoyo, de entidades públicas y privadas con voluntad de intervenir a nivel comunitario.

Trabajo y Empleo

100.000 EUROS PARA PROMOVER EL EMPRENDIMIENTO DE LAS MUJERES

